

# FAMILIA *eta* HAURTZAROAREN ALDEKO EUSKAL ITUNA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



# AURKIBIDEA

1. ZERGATIK FAMILIA ETA HAURTZAROAREN ALDEKO EUSKAL ITUN BAT/ **5**
2. HELBURUAK, ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JARDUERARAKO PRINTZIBIOAK/ **7**
3. EKIMENERAKO OINARRIZKO ILDOAK/ **13**
4. FAMILIA ETA HAURTZAROAREN ALDEKO EUSKAL ITUN HONETAKO ENTITATE ETA ERAKUNDE HARPIDEDUNAK/ **19**
5. ITUNAREN HEDAKUNTZA/ **21**
6. ONDORIOAK: KONPROMISOEN DEKALOGOIA/ **23**



# 1. ZERGATIK FAMILIA ETA HAURTZAROAREN ALDEKO EUSKAL ITUN BAT

13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoaren 3. artikulua zehazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-politika oinarrituko da ondorengo funtsezko balio hauetan:

- Familia-proiektuari buruz erabakitzeke eta hautatzeko eskubidea errespetatzea.
- Familiako kide guztien eskubideak errespetatzea, kide horien adina eta autonomia-maila edozein delarik ere.
- Familia-aniztasuna errespetatzea eta familia-mota guztiak berdintasunez tratatzea.
- Emakumeek eta gizonek aukera berak izatea, eta erantzukizunak bikotekide biek partekatzea.
- Familiak betetzen duen eginkizuna aitortzea, familia belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasun-eragile nagusia den aldetik.
- Familiak betetzen duen eginkizuna aitortzea eta errespetatzea, familiak hainbat balio transmititzen dituen aldetik, hala nola askatasuna, elkartasuna, errespetua, tolerantzia, berdintasuna, pluraltasuna, parte-hartzea eta elkarbizitza, baita, oro har, gizarte-elkarbizitzarako printzipio demokratikoak transmititzen dituen aldetik ere.
- Elkartasuna izatea egoera bereziki ahulean dauden edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua duten familiekin.
- Familia osatzen dutenek autonomia izatea, esparru horretan erabateko garapen pertsonala lor dezaten.

Balio horiek oinarri harturik, 4. artikuluan ezartzen du Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren familia-politikak berak eta politika horren esparruan taxuturiko neurri guztiek helburu hauek izango dituztela:

- Familia-mota guztien eskubideak sustatzea eta babestea, eta haien ongizate-maila hobetzen laguntzea.
- Familietan umeak eta nerabeak ondo babesturik egongo direla bermatzea.
- Edozein familia-proiekturi ekiteko eta nahi den haur-kopurua izateko dauden oztopoak progresiboki ezabatzen edo murrizten laguntzea.
- Etxeko eta laneko erantzukizunak uztartu ahal izateko erraztasunak ematea, baita emakumea lan-munduan sartzeko eta haren karrera profesionala garatzeko ere.
- Familian gizonen eta emakumeen erantzukizunpartekatzea finkatzen laguntzea, batez ere adingabeko seme-alabak zaindu eta hezteari dagokionez eta beren kasa moldatzen ez diren pertsonen arreta emateari dagokionez.
- Belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko elkartasuna sustatzea.

- Familiaren babes ekonomikoa bermatzea.
- Egoera bereziki ahulean dauden familietan gizarte-bazterketari aurre hartzea.

Familia eta Haurtzaroaren aldeko Itun hau sinatzen dugun entitate eta erakundeek kezkatuta egiaztatzen dugu gaur egungo testuinguru ekonomikoan helburu horietako batzuek bereziki mehatxatuta daudela. Egiaztapen hori oinarri izanik, sinatzen dugun Itunak bilatzen du politiken multzo bat egiturazko izaera duten ondorengo bi fenomeno hauei erantzuteko:

- Jaiotzen tasa baxuak eta, gehienbat, berauen familia-proiektua hasi eta desiratzen dituzten seme-alaben zenbatekoa edukitzea zailtzen duten traban iraunkortasuna.
- Seme-alabak dituzten familien zailtasun ekonomiko larrienak –horren adierazle nagusienetakoa da haur-pobreziaren hazkuntza– eta gero eta gehiago hazten diren desberdintasunen belaunaldien arteko transmisioa hausteko zailtasunak, eta horrek zalantzan jartzen du aukeren berdintasunaren printzipioa.

Azkeneko urteotan egindako esfortzuak hor egon arren, Itun hau oinarritzen da baita ere seme-alabak dituzten Euskadiko familien sostengurako politikek –Europa hegoaldeko bestelako herrialdeetan bezala– duten hobetzeko abagunean, behintzat, Europako beste lurralde batzuen konparazioan edota beste talde edo premia sozialen arloan garatu izan direnen aldean. Hain zuzen ere, EAEko Familiei laguntzeko erakunde arteko III. Planaren ebaluazioak adierazten du –aurrerabide ukaezinak gauzatu arren– ezin izan dela bideratu egundaino egituratze eta irismen nahikoa duen familia-politikarik Euskadin. Aldi berean, ezin izan da modu nahiko batean bete EAEko Familiei Laguntzeko 13/2008 Legeak agindutakoa. Lege horretako 10.5. artikuluan ezartzen da euskal administrazio publikoek modu progresibo batean hedatuko dituztela beren ardurapean adingabeko seme-alabak dituzten familientzako zuzeneko dirulaguntzei buruzko prestazioak, 2020. urtearen bitarteko epean European Batasunarekiko konbergentzia lortu ahal izateko.

Harpidetzen dugun Itunak oinarri hartzen da, azken batean, euskal politika sozial horiek guztiek Europako erakundeek babestu eta sustatzen duten inbertsio sozialeko paradigmara egokitzeko premia. Paradigma honen ezaugarri nagusia da enfasi aldaketa bat ematen dela konponketara orientatzen diren politiketatik prestakuntzara orientatzen diren beste politiketara, oinarri hartuz, beste batzuen artean, familia, hezkuntza eta aukera-berdintasunen politikak, modu honetan gako gertatzen da garapen sozialerako, baina baita ere ekonomikorako. Gune horretatik abiatuz, ikuspegi honek arreta jartzen du haurtzaroan inbertitu dezaketen zerbitzuetan, aukera-berdintasun eta mugikortasun sozialaren mailaren bat garatzeko baldintzak sortzea, emantzipazio eta helduarorako trantsizio-prozesuak errazteko, seme-alabak dituzten sendiei lagundu eta ordainsaria jasoko duten enplegura sartzeko baldintzak emakumeei erraztuz.

Instituzioen kokatzeari dagokionez, Itun honek Eusko Jaurlaritzak Euskadi 2020 bitarteko XI. Legegintzaldirako hartutako konpromisoari erantzuten dio, izan ere, Herrialdearen Helburuen artean zehazten baitira jaiotzen tasa haztea eta seme-alabak dituzten familientzako laguntza gehiago izatea. Horren inguruan, Gobernuaren Programak ondorengo hau nabarmentzen du: Euskadik, Europako gizartearen gainerako zati batek bezala, gizartearen pixkanakako zahartzeari eta jaiotza-tasa sustatzeko beharri aurre egingo dieten politika sozial eta demografikoa garatzeko erronka duela. Adinekoei emandako arreta, batik bat mendekotasun-egoeran bizi diren nagusiei, eta familia eta haurrei laguntza emateko politikak funtsezko bi oinarri direla Euskadiko gizarte-politiketarako”. Egiaztapen horretatik abiatuta, Itun hau sinatzen dugun erakunde eta entitateek onartzen dugu familien garrantzia harreman humano eta gizarte-hezkuntzarako ardatz gisara, eta apustu egiten dugu jada ardura familiarrak dituzten pertsonentzat eta familiak osatu nahi dituztenentzat erraztaile izango diren politiken alde egiten, bizimodurako proiektu horiek ahal bezain baldintzarik egokienetan gauzatu eta hori gertatzea eragotzi dezaketen zailtasun ekonomiko eta laboralak gainditzen saiatuz.

## 2. HELBURUAK, ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JARDUERARAKO PRINTZPIOAK

Familia eta Haurtzaroan Inbertitzeko Estrategiaren Oinarrien Dokumentuan buruturiko diagnostiko hartatik, ondorengo hauek dira familia eta haurtzaroan inbertitzeko Euskal Itun honen bitartez lortu nahi diren oinarrizko helburuak:

- Emakume eta gizonen ugalkortasunari loturiko itxaropenak gauzatzen aldezte eta, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legeak dionaren arabera, trabak ezabatzen edo murrizten laguntzea familia-proiektuari ekin eta desiratzen diren bezain bat seme-alaba izateko.
- Europako instituzioek babesturiko haurtzaroaren inbertsio-ikuspegia gauzatzea, horretarako haur eta nerabeen aukera-berdintasuna bermatuko duten neurriak artikulatuz.
- Belaunaldien arteko desberdintasuna transmititzeari aurre hartu eta ahal bezain gehien murriztea seme-alabak dituzten familien pobrezia-egora horiek.

Helburu horiek lortzeko, hitzartzen dugun Itun honek oinarri ditu ondorengo printzipio hauek:

- **Familia-aniztasunari aintzatespen eta sostengua**

Gaur egun, seme-alaba biologikoak dituzten ezkontideek osaturiko familia ez da haurrak hezi daitezken familia-egitura bakarra. Badira ezkontide ez diren bikote edo sexu bereko bikoteek osaturiko familia-motak. Beste familia batzuek ez dute seme-alabarik izaten. Beste batzuek haurrak adoptatzen dituzte. Badira gurasobakar edota berrosaturiko familiak. Hau da, gaur egungo euskal familiak, gure inguruenerako gizarte aurreratueta bezala, pluralago, aldakorrago, konplexuago eta, baita ere, hauskorragoak dira.

Itun hau abiatzen da familia-egitura, bizimodu familiarreko ibilbide eta familiaren baitako harremanetan gertatzen ari diren aldaketa-prozesu sakon horren ezagutzatik, eta bilatzen du aintzatespen eta babes sozialaren maila berbera izatea dauden familia-egitura horiek guztiek.

- **Erantzunkidetasun eta genero-berdintasuna, ugalkortasunaren hazkunderako ezinbesteko baldintza**

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta heziketaren erantzunkidetasuna dira ugalkortasunaren sustapen-politika egokienak. European ugalkortasun-tasa altuena dute ama direnei enplegua izatea sustatu eta errazten dieten herrialdeak, horretarako genero-berdintasun eta kontziliario erantzunkidea sustatzen duten politikak aplikatuz. Eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoak erakusten duenez, haurren zaintza gehiengoan emakumeen ardurak izaten segiz gero –amatzeaz gain, heziketa jaso eta itxaropen personal eta laboralak dituzten emakumeak–, baxuak izaten jarraituko dute ugalkortasun-tasa horiek.

Ikuspegi horri jarraituz, ezinbestekoa gertatzen da erantzunkidea den gizarte-antolakuntza baterantz aurrerabidea egitea, EAEko emakume eta gizonen arteko Berdintasun Planek

nabamentzen duten ildo beretik. Zentzu honetan, eta interesgarriak diren praktika eta esperientziak identifikatzeko ikuspegiari jarraituz, ezinbestekoa gertatzen da aita (gizon) direnek ezagutu duten zaintza-baimenen hedapena nabarmentzea, eta, orokorrean, guraso bientzako berberak eta transferiezin diren baimenen luzapenaren hazkuntza.

Modu beretik, laneko ordutegiak arrazionalizatu eta indarrean dauden eskubideak –egiazkoak izatea laneko ingurune edo ugazaba ulerberen esku egoten dira– bermatzen dituen laneko legeria batek oinarritzko eragina izango luke. Bide beretik jarraitzen dute aitaren eskubideak handitu eta partekaturiko gurasotasun-patroiak hasieratik ezartzen errazten duten politika publikoek.

Gogoeta horiei segiz, Itun honek oinarri du erantzunkidea den gizarte bat sustatzea, horretarako lan produktibo eta laboral, lan erreproduktibo edo zainketan bi gurasoek neurri berean partaide dituzten eredu bat garatuz, horretarako oinarri hartuz jasotzaile bikoitz eta zaintzale bikoitzaren eredu. Diru-sarrera bikoitz eta zainketa bikoitzaren familia-ereduaren sostengu publikoa da ugalkortasun-politikarik lagungarriena, eta haur-pobrezari aurre egiten eraginkorrenetakoa, eta ezkontideen hausturen tankerako gertakizun familiarretan emakume eta haurrentzako babesik gehien eskaintzen dute.

- **Arreta zuzeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoen konbinazioa**

Familien prestazioetarako gastu altua bideratu eta haurtzaroari sostengua eskaintzea eta ugalkortasun-tasa konparatiboki altuaren arteko korrelazioa egiaztatua dagoen arren, ezin daiteke ezarri zuzeneko erlazio kausalik seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoak bideratu eta jaiotze-tasaren hazkuntzaren artean. Berez, pentsatu daiteke dirua izatea baino garrantzitsuagoa dela astia –hau da, premiekiko egokiagoa den asti eta ordutegi sozialen egituraketa bat– eta sostengurako zerbitzu egokiak bideratzea seme-alabak izateko desira bete eta haurren ongizatea bermatu ahal izateko.

Egiaztapen hori aintzat hartuz, Itun hau sorburu duten ekimenek nabarmen hobetu beharko dituzte gizarte-zerbitzu, hezkuntza, osasun eta haurren zainketarako zerbitzuak eta, halaber, kontziliazio erantzunkide baten esparruan, seme-alaben zainketarako prestazioak. Aldi berean, aitzitik, Itun honek oinarri hartzen du haur-pobrezia behertzeko eta heziketak sortarazten dituen kostuen konpentsazio gisara, prestazio ekonomikoek duten gaitasunaren aintzatespena, eta horren ondorioz biltzen dira prestazio horien luzatze eta unibertsalizaziora orientatzen diren neurriak.

- **Unibertsaltasun progresiboa: familia ororentzako zerbitzu eta prestazioak, betiere premia gehien dutenei arreta berezia eskainiz**

Aurretik aipaturiko EBren Gomendioaren arabera, haur guztien ongizatea hobetzera bideratutako politikak nabarmendu dira haur-pobrezari aurre egiteko arrakastatsuen, eta, aldi berean, berariaz egoera kalteberan bizi diren haurren egoera kontuan hartzen dute. Hain zuzen ere, azterlan askotan nabarmentzen da familientzako sostengu-ereduen arrakastaren oinarrian omen dagoela izaera unibertsaleko politikak ezartzea, izan ere, herritarrek sostengatzen dute, bermatzen dute zenbateko altuagoak banatzea, murrizketen eragin urriagoa izaten dute, eta errazagoa da berauen kudeaketa. Izaera unibertsal horrek, edonola ere, ez du zergatik zapuztu beharrik ikuspegi progresibo edo fokalizatu bati jarraitzea, eta bide horretatik, errenta apalena edo zailtasun gehien dituztenentzako zenbateko altuagoak banatzea.

- **Kapital sozial, koedukazio eta hezkuntza ez formalaren garrantzia**

Hitzartzen dugun Itunak enfasia jartzen du ehundura soziala indartzearen premian, modu sendo batean familiak egitura komunitarioetan integratu, eta eguneroko bizimoduan agertzen diren



defizit eta disfuntzio horiek arintzeko egitura komunitario horiei laguntza eskatu ahal izateko. Kapital sozialaren alderdi onuragarrien ikerkuntzen ahaide da ikuspegi hau, hezkuntzaren ardura kolektiboa ulertzen du oinarriko premisa gisara, eta familia eta hezkuntza-eragileez gain, beharrezkotzat jotzen du komunitate osoaren ardura lortzea.

Ikuspegi horri helduta, Itun honek baieztatzen du hurrek arrisku gutxiago bizi dutela berauek zaintzeko egitura komunitarioak izanda, familiek berauen ingurunean lotura sendoak dituztenean, eta lurraldeko eragile-egitura zabal batek laguntzen dituztenean premia-egoeretan.

Beraz, gizarte-arazoei aurre egiteko aldeztu nahi dugu erantzun komunitario bat, haur-biztanleria osoari bideratutako gizarte-hezkuntzako izaerako zerbitzu eta ekipamenduen garapena, eta koedukazioan oinarrituriko hezkuntza-formulen garapena. Testuinguru honetan, haurtzaro eta nerabezaroaren merkantilizazioari aurre egin nahiaz, Itun honek apustu egiten du babes sozialeko politikak areagotu eta indartzeaz gain, arlo sozialetik kanpo dauden hezkuntza ez formal, kirol, kultur eta aisialdirako jardueren eskuragarritasunean oinarrituriko gizarte-hezkuntzako eskuartearen ikusmoldea duten prebentzio eta sustapenerako haurtzaro- eta gazteria-politika horiek guztiak.

- **Eskubide-subjektu diren haurrak**

Nagusiki, Itun honen orientaziorako printzipioen oinarri dira Haurraren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren printzipio berberak, eta berauetan ezartzen da haurren interesaren lehentasuna. Konbentzioak Estatu Kideei eskatzen die haurtzaroaren ongizaterako premiazkoa den babes eta zainketa ziurtatzea, kontuan izanda berauen guraso direnen eskubide eta betekizunak (3. art.), eta Estatuari exijitzen die eskuragarri dituzten baliabide horiek guztiak erabiltzea haurren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak gauzatzeko (4. art.); biziraupen eta garapena bermatzea (6. art.); edo gurasoei laguntzea haurtzaroarentzako garapen eta bizi-maila egokia izateko (27. art.). Konbentzioaren aplikazioaren derrigorrezko ondorioz, haurrak bilakatzen ditu eskubide, zerga-eskubide, berezko eskubide eta Estatuaren laguntzen titulartasunaren jabe, eta haurrak familia-zama bezala agertzen diren familiei ematen zaizkieten dirulaguntzen zeharkako ez hartzaile gisara hartzen dira kontuan.

- **Haurtzaroarekiko inbertsioa**

Azkeneko urteotan egituratzen ari da argumentu-multzo bat haurtzaroari bideratutako inbertsio publiko proaktiboaren inguruan. Diskurtso berri horien esanean, gure gizartearen etorkizunean inbertitzea da haurtzaroan inbertitzea. Politika sozialaren paradigma berri honetan, haurtzaroaren aldeko gastu publikoak ez du kontuan hartu daiteken kostu sozialik, aitzitik, ardatz nagusi bilakatzen da etorkizunera orientaturiko inbertsio sozial produktibo gisara. Ikerkuntza sozial ugari babesturik, paradigma berri honek eskatzen du esfortzuak areagotzeko haur-pobrezari aurre egiten, lanarekiko dedikazio eta familia-ardurak orekatzeko zailtasunei laguntzea, edo partaidetza sustatzea kultur eta hezkuntza-baliabide apalak dituzten haurtzaroko eskolaurreko hezkuntzan.

Ituna oinarritzen den bigarren oinarriko printzipio edo irizpidea da, beraz, haurtzaroaren aldeko inbertsioaren printzipioa, inbertsio sozial edota Estatu sozial inbertsioaren paradigmen baitan. Haurtzaroan inbertitzea justua da, errentagarria da, guztiontzako onuragarria da, eta funtsezko osagaia da gizartearen eraldaketarako. Haurtzaroaren aldeko inbertsioaren ideia zuzenean lotzen zaio babes sozialeko politika europarren muinari, eta premia sailhestezina da gure babes sozialeko eredu berriz orientatzeko. Horren ondorioz, apustu egiten da haurrak aldi berean ondare pribatu eta publikotzat hartzeko, eta familia eta haurtzaroari bideratutako gastu publikoa inbertsio sozial eta gizarte osoaren hobekuntzarako lanabes gisara ulertzeko.

Europako Batzordearen 2013ko otsailaren 20ko Haurtzaroan inbertitu: desabantailen zikloa hautsi gomendioak onartzen du EBko haur-biztanleriak, biztanleria orokorraren aldean, pobrezia edo gizarte-bazterketa arrisku handiagoa duela, eta pobrezia edo bazterkerian hazten diren

haurrek, hobeto bizi diren berauen adinkideen aldean, aukera gutxiago izango dituztela eskola-errendimendu, osasun eta berauen etorkizuna erdiesteko. Egiatzapen hori oinarri, ondorengo hau nabarmentzen du Batzordeak:

- Belaunaldien arteko desabantailen transmisioa sahiestea ezinbesteko inbertsioa da Europaren etorkizunarentzat, eta zuzeneko ekarpen bat da hazkuntza adimentsu, iraunkor eta integratzailea Europa 2020 estrategiarentzako, eta epe luzeko onurak azaltzen ditu haurtzaro, ekonomia eta gizarte osoarentzako.
- Politika eraginkorrago eta efizienteagoak burutzeko funtsezko dira eskuartze goiztiarra eta prebentzioa, izan ere, adin goiztiar batean eskuartzeko beharrezkoa baina gehiago izaten baita pobrezia eta bazterkeriaren ondorenei aurre egiteko gastu publikoa.
- Pobrezia eta bazterkeriari aurre egin eta esfortzuak berrindartzeko modu garrantzitsua da bizimoduaren lehendabiziko urteetako desabantailak zuzentzea. Prebentziorik eraginkorrena lortzen da gurasoei emandako errentari egokitutako laguntza eta haurren etorkizunerako funtsezko diren zerbitzuen sarbidea konbinatzen duten estrategia integratuen bitartez, adibidez, kalitatezko (eskolaurreko) koedukazio, osasun, etxebizitza eta babes sozialaren arloko zerbitzuak; eta, bestetik, partaidetza eta eskubideen betekizuna eskatzeko aukerak, izan ere, berauen ahalmena garatu eta kalteberatasuna mugatzeko baliagarri baitira.

- **Arreta goiztiarra: bizitzaren lehenengo mila egunen garrantzia**

Gero eta ugari eta eztabaida ezinagoak dira bizitzaren lehenengo urteak eta eskuartze goiztiarra bizitza osoko garapenaren ahalmenarekin lotzen dituzten azterlanak, eta biltzen dira 'oinarrizko urteak' (foundation years) kontzeptu generikoaren baitan bateraturiko paradigma batean, etorkizuneko bizimoduaren oinarriak ezartzen diren fase horretan. Diziplina desberdinetako ikerketa sendoek positiboki lotzen dute umetako inbertsioa ondorengo laneko merkatuko emakumeen partaidetza altuagoarekin, ugalkortasunaren indize altuagoekin, jatorri sozioekonomiko desberdineko haurren aukera-berdintasunarekin eta, azken batean, ezagutzaren gizarte esaten zaiolak dituen premien egokitzapen hobearrekin.

Illo beretik, azterlan ugari nabarmentzen dute eskuartzerako unerik produktiboena gertatzen dela haurrak oso txiki direnean. Zentzu horretako ebidentzia nabarmen batek iradokitzen duenez, hezkuntzako eskuartzeak gero eta errentagarriago eta kostu-eraginkorragoak dira ahalik bezain goizen bideratzen direnean. Logikoki, beranduagoko eskuartzeek ere badute eraginkor izateko ahalmena, baina orokorrean, umetako eskuartzeak dira eraginkor eta kostu-eraginkorrenak.

- **Aukera-berdintasun eta gizarte-mugikotzeartasuna**

Itun honen onartzeak sorburu dituen neurriek nahi dute mugikortasun soziala aldeztu eta belaunaldien arteko desberdintasunaren transmisioa gutxitu. Egungo krisialdi ekonomikoak, desberdintasunen hazkuntzak eta eredu produktiboaren aldaketak aukera-berdintasuna murrizten du eta bereziki kaltetzen ditu gurasoen aldetik kapital nahikoa (ekonomiko, kultural edo erlazonala) jaso ez duten haurrak. Itun honek bilatzen du hezkuntza, kultur eta diru-sarrerak bermatzeko politikak garatu, alde nabarmen horiek murriztu eta pertsona guztientzako aukera-berdintasunen oinarrizko maila bat ziurtatzea, kontuan hartu gabe jatorriko familien ekonomia, kultur edo hezkuntzaren ondarea.

- **Instituzio arteko eta dimentsio anitzeko izaera**

Dimentsio anitzeko izaera dute Itun honen esparruan aurkezten diren konpromiso eta jarraibideek, eta lehenasunez eragiten diete ondorengo politika publiko hauei: hezkuntza, berdintasuna, etxebizitza, diru-sarreraren bermea, kultura, gizarte-zerbitzu eta osasun politikak. Modu berean, eta EAEko eskumenen egituraketari kontu hartuz, Itun honek instituzio arteko izaera du, udalek babestu eta hitzartu dute –aurrerago zehaztuko da– Euskadiko Udalen Elkarte, Foru Aldundi eta

Eusko Jaurlaritzaren baitan hezkuntza, berdintasun, etxebizitza, gizarte-zerbitzu, kultura, enplegu eta diru-sarrerak bermatzeko arloetan eskumenak dituzten departamentuen bitartez.

- **Eragile publiko eta pribatuen lotura**

Familia eta haurtzaroari orientatuagoa jardungo duen babes sozial eta erlazio sozialetako eredu bat eraikitzeko ezinbesteko gertatzen da eragile sozial horien guztien inplikazioa lortzea, bereziki, lan-harremanak zehazteko garaian inplikazio zuzena duten sindikatu eta ugazaben elkarteak. Halaber, funtsezkoa gertatzen da Hirugarren Sektoreko erakundeetan haurtzaro, familia, berdintasun, ezgaitasun edo bazterkeriaren arloetan burutzen diren sustapen eta erreibindikazioak. Horrek guztiak justifikatzen du Familiaren Euskal Kontseiluaren baitan egungo erakunde horiek guztiek Itun hau sinatu izana.



# 3. EKIMENERAKO OINARRIZKO ILDOAK

Aurretik aipatu den bezala, estrategia honen jatorria da familia-proiektua hasteko zailtasun gertatzen diren trabak ezabatu eta desiratzen diren seme-alabak izaten laguntzea, eta, bestetik, kezkarri diren haurtzaroaren baitako desberdintasun eta seme-alabak dituzten familietako zailtasun ekonomikoen hazkuntzak eten eta beheratzea.

Herrialde aurreratuetan haur-pobreziaren eragin eta ezaugarrien inguruko azterlan oso desberdinek azaltzen dutenez, faktore soziodemografikoez gain, oso lotura hertsia gertatzen da fenomeno horren eta politika sozial publikoen artean. Hain zuzen ere, kontsentsu oso zabala gertatzen da haur-pobreziaren prebentzio eta euskarri gisara politika sozialek betetzen duten funtsezko rola onartu eta familia guztientzako aukera-berdintasuna aldeztu duten politikak sustatzearen egokitasunean. Zentzu honetan argia ematen du haurtzaro, famili eta haur-pobrezia murrizteko bideratutako gastu sozial publikoaren arteko erlazioa, eta esan daiteke badaudela haurtzaro eta familiaren babes ematera orientatzen diren babes sozialeko ereduak dituzten herrialdeak. Horrela, –aurretik nabarmendu den bezala– haur eta gazteek osaturiko biztanleriarengan pobrezia-arriskua mugitzen ari den testuinguruan, haur-pobrezia prebenitu eta eustea bilakatzen da, azken batean, politikaren barneko lehentasunezko gaia.

Ebidentzia zientifikoak ez dira horren argiak politika publiko eta jaiotza-tasaren hazkuntzaren arteko erlazioa ezartzean. Zalantzarik gabe, jaiotza-tasen egoera eta eboluzioak kezka sortarazten du gizartean. Halere, zaila gertatzen da zehazten biztanleriaren jaiotza-tasaren kezkarritasuna ezartzen, eta ez dago argi biztanleria batek jaiotza gutxiago izatea arazotzat hartu ote daitekenik. Egiazki, euskal biztanleriak sentitu duen aldaketa demografiko sakonak ekarri du efizientzia handiagoa duen sistema bat, eta bere ugalketak ez ditu beharkeko erreprodukzioa ziurtatzeko jaiotzaren inguruko balio horren altuak. Modu honetan, jaiotza-tasa jada gainditurik dauden logiketatik aztertzeak arrazoirik gabeko alarmismoa dakar gaur eguneko egoera demografikoaren inguruan.

Halere, badaude administrazio publikoek jaiotza-tasaren inguruko kezka izateko arrazoiak, eta neurriak bideratu behar dira arlo horretan. Errepikatu beharra dago arlo honetako eskuartze publikoak ez lukeela zentratu behar jaiotzen ondorio sozialetan, baizik eta pertsonen eskubide eta ongizatean. Gaur egungo jaiotzen mailak ez du zergatik erabaki indibidual edo balio-aldaketa baten ondorio izan beharrik, eta kontuan hartzekoa da desiratutako seme-alabak izatea ez erraztu eta trabak jarri ditzaken ingurune sozialaren eragina.

Zentzu honetan nabarmendu da euskal jaiotza-tasa baxuaren arduraren alderdi baten arrazoiak ondorengoak izateko pertsonen desirak gauzatzea zaildu egiten duen egitura sozialarengatik gertatzen dela. Kasu honetan, baliagarri gertatuko litzateke jaiotzen ingurune horren kontrako ekimen bat, ongizatea eta adin erreproduktiboan daudenen ugalkortasunari loturiko eskubideak bermatzeko.

Beraz, oso garrantzizkoa da politika publikoen bidetik seme-alabarik izateko erabakia edota desiratzen diren bezain beste haur izateko erabakia aldeztuko duen testuinguru sozial, kultural eta laboralari laguntzea, kontuan izanik familiaren kide direnen roletan gertatu den aldaketa eta, bereziki, emakumeen roletan, eta onartu beharke da gizarte aurreratuenerako ugalkortasuna bi seme-alaben zenbatekoan mantentzen dela, eta ziurrenik ez direla helduko sekula gure iraganeko garaietan ezaugarri izandako maila altu horietara.

Gogoeta hori oinarri hartuz, Itun honen harpidedun garen entitate eta erakundeek konpromisoa hartzen dugu –epe motz, ertain eta luzean– aldaketa-multzo zehatz batzuek sustatzeko egungo haurtzaro eta familiari bideratutako politiketan, berariaz, familien sostengurako bideratzen diren prestazio ekonomiko, haurtzaroarentzako arreta-zerbitzuen zabalkundea, hezkuntza-sistemaren gaitasun inklusiboaren errefortzua, biztanle gazteen emantzipazioa eta familien osaera sustatzen duten politika publikoen garapena, eta apustu egitea oinarri komunitarioa duten gizarte-zerbitzu, gizarte-hezkuntza eta kultur zerbitzuen alde.

Zehazkiago, Itun hau hitzartu dugun entitate eta erakundeek konpromisoa hartzen dugu burutzen ditugun jardueretan sakonago jarduteko, ondorengo hauek lortu asmoz:

**a) *Gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatu seme-alabak dituzten familia guztiei eta haur-pobrezia prebenitu.***

Egungo familiei bideratutako sostengu ekonomikoaren ereduaz albo batera –erlatiboki erginkorra izan arren, Europar atipikoa da, aurretik aipatu den bere izaera dualarengatik–, derrigorrezko gertatzen da Euskadi aurrerabidea egitea eredu unibertsal eta prestazio ekonomikoetan zabalagoa den baten alde, seme-alabak dituzten familia guztietara heltzeko gaitasuna izatea eta haur-pobreziaren prebentziorako eraginkorragoa izatea.

Itun hau sinatu dugun entitate eta erakundeek konpromisoa hartzen dugu analisiaren bidez aurrerabidea ezagutzeko, bai zerga-politiketan bai gastuari loturiko politika publikoetan, eta beharreko diren egokitzapenetan, modu honetan, biek ere Plan honetako helburuak lortzen armonikoki lagundu dezaten.

Zentzu honetan apustu egiten dugu seme-alabak dituzten familien euskal babes-ereduaren unibertsaltasuna mantentzeko, hezketa gastuek duten esker on eta ordain sozial modura, berariazko moduan kalteberatasun handiena pairatzen duten familien babes ekonomikoa indartzearen alde, eta integrazioaren alde aurrerabidea gertatzeko, prestazio ekonomiko eta zerga-neurrien arlo honetan.

**b) *Gurasoek seme-alabentzako beharrezkoa duten bezain besteko astia izatea erraztea, familien premiei aurre egiteko denbora sozialaren antolaketa egokiago bat, eta antolaketa sozial erantzunkidea bultzatzea.***

Aurretik aipatu den moduan, Itun honek sorburu du ondorengo egiaztapena, kontziliazioaren ideia hutsetik areago egin beharra dagoela, eta erantzunkidetasuna ezarri behar dela berdintasun-politiken printzipio gisara, eta horrek adierazi nahi du bai emakumeek bai gizonak arlo publiko eta pribatuaren ardura hartzen dutela, eta gizonen partaidetza nabarmentzen du etxebizitza eta zainketen gunerako. Bestalde, erantzunkidetasunak ez ditu gizonak bakarrik kontuan hartzen, izan ere, Estatuak, merkatua eta gizartearen partaidetza ere kontuan hartzen baitu.

Halaber, funtsezko gertatzen da kultura enpresariala moldatzea, zerbitzu publikoen estaldura eta ordutegi-malgutasuna zabaltzea, eta kontziliazio erantzunkidea aldeztuko duen plangintza urbanistikoa eraldatzea.

Idea horretatik abiatuz, eta kontziliaziorako laguntza ekonomikoari dagokienez, lanaldietako astia gutxitzeko neurrien premiaren uste osoa dugu, baina bigarren mailakoa da zentroetako haur-arretaren aukeraren aldean, eta lanaldiko astia eta zainketa egokitzera bideratutako laguntza horiek, beraz, bideratu behar dira etapa eta familia-mota batzuen arretara. Halaber, oinarritzat hartzen dugu baimen horien erabilera gurasoen erantzunkidetasuna sustatu beharreko premia, eta kontuan hartu behar da gizon eta emakumeen erabilera sustatzen dutela politiken ondorengo osagai hauek: izaera unibertsala, malgutasuna, eskubideen titulartasun indibiduala eta, nagusiki, ordezkatu nahi den ordainsariarekiko zenbateko ekonomiko nahikoa izatea.

Egiaztapen horiek oinarri, ezinbesteko jotzen dugu egungo prestazioen inguruan orientazio berri bat bilatzea, laguntza ekonomikoak sendotu 12 hilabete azpiko umeen lan-utzialdi eta premia bereziak dituzten familien kasuetan lanaldia murrizteko (familia ugari, gurasobakar edota ezgaitasunen bat duen pertsonaren bat duten familiak). Bi kasuetan ere, ezinbesteko jotzen dugu guraso biek laguntza horiek erabili behar dituztela sustatzea, modu nabarmenean jasoz kasu horietako prestazio horien zenbatekoa. Modu honetan lortzen da seme-alabak zaintzeko laguntza ekonomiko garrantzitsua jasotzea lana utzi nahi duten gurasoek, eta lanaldia murrizteko laguntzeak bideratu, zenbatekoa altuagoa eskainiz, heziketarako sostengu gehiagoren premia duten familientzat.

Halaber, horrek guztiak eskatzen du eragile sozialen adostasunaren bitartez, laneko ordutegi eta gizartearen ordutegien arrazionalizazio eta malgutasunerako neurriak sendotzea.

***c) Gazteen emantzipazio eta bizimodu-proiektu autonomoei lagundu, modu horretan, familia-unitate berriak sortzea errazteko, eta horren desira duten kasuetan, ondorengoak izateko.***

Zalantzarik gabe, familia osatzaren inguruko egitura soziala eraldatzeko politikak dira –enplegu eta etxebizitzarekiko egoera, egonkortasun ekonomikoko itxaropenak, etab.– familiak osatzen hastea sustatzeko erabat eraginkor izateko gaitasuna duten politika bakarrak. Ikuspegi horretatik, estrategia honek azaltzen du gazteen emantzipazioa aldeztu, ezkutuko pobrezia gutxitu eta enplegu- eta etxebizitza-arloan berariazko neurriak bideratuz, bizitza-proiektu autonomoak gauzatzeko neurriak ezartzea.

Egiaztapen hori aintzat harturik, ezinbesteko jotzen dugu enplegu-, etxebizitza- eta gazteria-politiken arloan garatuko diren arautegi eta plangintzetan lehentasunezko helburu izatea biztanle gazteen emantzipazioa, ahal den neurrian bermatuz egoitza eta lanaren egonkortasuna bizitza-proiektu autonomoaren aldeko hautua egin dutenentzat

***d) Gurasotasun positibo, haur-osasun, gatazken prebentziorako programak sendotzea, modu horretan sendotzeko guraso- eta hezkuntza-gaitasunak, aztura osasungarriak sustatu eta familien baitan gerta daitezkeen gatazken konponketa erraztuz.***

Itun hau sinatu dugun entitate eta erakundeok uste dugu gurasoen funtzioen sostengurako eraginkor direla frogatutako gurasotasun positiboko programak berrindartzea funtsezkoa dela. Ekonomia, asti eta kalitatezko hezkuntza-zerbitzuez gain, familiek premiakoa dute informazio, orientazio, aholkularitza eta sostengua beraien guraso-funtzioak betetzeko.

Gurasotasun positiboko sostengu hauen eskaintza da familia-politiken baitako berrikuntza nagusienetakoa, eta Itunaren arlo honetan ezinbesteko jotzen dugu toki-, lurralde- eta erkidego-mailan sendoki ezartzea.

Halaber, konpromisoa hartzen dugu familiaren bitartekaritza-zerbitzuak sendotzeko –familia mantentzeko helburu edota familia-gatazkek gutxitzeko helburuei jarraikiz –, eta osasun-eskubideen desberditasunak saihesteko eta haurtzaro eta nerabezaroan aztura osasungarriak aldeztuko dituzten politikak garatzeko. Esparru horren baitan, ezinbesteko jotzen dugu parekoen tratatu txar, genero-identitateagatik diskriminazioa, tabako, alkohol eta bestekako drogen kontsumoak, eta ingurune digitalean haurren eskubideak bermatzea.

Halaber, konpromisoa hartzen dugu haurren babesgabetasuneko egoeretara orientaturiko gizarte-zerbitzuetako garapena sustatzeko, eta arrisku-egoeran dauden haurrei orientaturiko gizarte-hezkuntzako eskuartze, familien eskuartze psikosozialeko programa eta familia-abegirako programen garapen handiagoa eta lurraldean hedatze hobea izatea.

**e) Haur guztiek arreta-zerbitzu irisgarri, arrazoizko preziokoak eta kalitatezkoak jasotzea erraztea.**

Nazioarteko erakunde desberdinek, adibidez, ELGA antolakundeak (ODCE ingelesez), nabarmendu dute haurren kalitatezko arretak haurtzaroaren etorkizuneko garapenean duten eragin baikorra. Adibidez, frogatu egin da hiru urtez azpiko umeak dituzten emakumeen enplegu eta 0-3 urteko zikloan dagoen umeen partaidetzaren arteko erlazio zuzena. Halaber, hezkuntza-erlazioak hobekitu dituzte haur-hezkuntzara sartzen diren umeek.

Horren ondorioz, aurretik nabarmendu den bezala, haurtzaroaren aldeko inbertsio-politikek eta familien sostengurako politikek gero eta garrantzi handiagoa ematen diete arreta goiztiarrari eta irisgarri, eskuragarri eta kalitatezkoak diren haurren arreta-zerbitzuei. Testuinguru honetan uste dugu irisgarri, eskuragarri eta kalitatezkoak diren haur-hezkuntzako zentroetan haurren sarbidea lortzea dela benetako aukera-berdintasun politika eraginkor baten alderdi garrantzitsuenetako bat, izan ere, eskolaurreko garaikoak baitira ikaskuntzaren oinarriak eta desberdintasunen oinarritzko jatorriak.

Zentzu horretan, uste dugu arreta goiztiarrean zentratutako politikek haurren mugikortasun sozial eta ongizatea sustatzen dutela, eta aldi berean ahalbidetzen dute bestelako helburu batzuk betetzen, adibidez, gizarte-inklusioa, pobrezia murrizketak, gurasoen enplegua, gurasoen hautatzeko gaitasuna edo genero-berdintasuna. 'Oinarritzko urteen' ideia horretatik abiatuz, Itun honek jatorri du kalitatezko arreta-zerbitzuetara sarbidea erraztearen premia, bereziki 12 eta 36 hilabeteko umeentzako, horretarako plaza eta zentroak egokituz, beka eta tarifak politikak adostuz, eta profesionalen gaitasuna hobetuz.

**f) Hezkuntza-politikak berriz orientatu eta eskola-sistema inklusibo eta koedukatzailerak eraikitzen sakontzea, ekitatea bermatuko duena eta desabantaila sozial eta ekonomikoan dauden ikasleen zailtasunak orekatuko dituen.**

Aurreko orrialdeetan azaldu da hezkuntzako errendimendu eta prestakuntzarako oinarritzko maila lortzea gero eta gehiago baldintzatzen duela ikasleen jatorriak. Aspalditik euskal eskola inklusiboaren eraikuntzari garrantzia handia eman arren, hezkuntzaren arloko traba garrantzitsuak bizi ditu familia edo gune desabantailatsuenetako jatorria duen ikasleriak.

Bestalde, ezagutzaren ekonomiak eskatzen dituen prestakuntza eta trebezietako aldaketa sakonen ondorioz, eskola-curriculum eta hezkuntza-praktiken orientazio berri eta sakon baten premia gertatutako da euskal eskolan.

Idea bi horiek oinarri, Itun honek euskal eskolaren izaera inklusiboa sendotzeko indarrean dauden izaera konpentsatzaileko eskolako neurri eta prestazioak sendotzeko premia hartzen du sorburu, eskola-segregazioa sahistu eta ezagutzaren ekonomiak eskatzen dituen trebezia eta gaitasunetara orientatu hezkuntza-curriculum hori.

**g) Aukera-berdintasunean, haur eta gazte guztiei eskaintzea gizarte-hezkuntzako, kirol, kultur eta aisialdirako baliabide eta ekipamenduen eskaintza zabalago bat.**

Haur-pobrezia esperientziaren ondoriozko zailtasun eta desabantaila ugari arindu daitezke –hezkuntza, erlazio, estatus, etab.– gizarte-hezkuntzako zerbitzu eta eskuartzeen bitartez, eta horien bidez haur guztiek dute garapen egoki baterako gako diren ikaskuntza, sare sozial, esperientzia eta ezagutzetarako sarbide. Zalantzarik gabe, haur-aisialdiaren merkantilizazio nabarmena gertatu den testuinguru ekonomiko eta kultural batean, eta erlazio sozial eta jarduera esanguratsuenak erosteko ahalmenaren mendeko diren garai honetan, ezinbesteko gertatzen da zerbitzu batzuek sustatzea, eta zerbitzu horiek ahalbidetzea, alde batetik, pobrezia pairatzen duten familien gabezia orekatzea eta, bestetik, haurren garapenean pobrezia eragin ezkorra gainditzeko oinarriak finkatzea.



Itun hau harpidetzen dugun entitate eta erakundeen ustez, funtsezkoa da gizarte-hezkuntzako zerbitzu, kultur eta kirol-ekipamenduen sendotze, eta denboraren banku, ludoteka sozial edota eskola-laguntzarako programak bezalako kudeaketa komunitario propioko ekimenak berrindartzeko instituzioen arteko estrategia bat artikulatzea.

***h) Familia- eta haurtzaro-politiken gobernantza hobetzea eta gizarte-hezkuntzako gune erreal baten garapena.***

Itun honek haurtzaro- eta familia-politikak ulertzen ditu osasun, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-zerbitzu, enplegu eta diru-sarreraren bermerako politiketatik artikulatzen diren politika transbertsal gisara. Izaera transbertsal horrek premiako du politika horien gobernantza egokia bermatuko duen erabaki tekniko eta politiko irmo bat.

Eusko Jaurlaritzaren baitan sorturiko Familia Politika Zuzendaritzak eta ondoz ondoko instituzioen arteko familien laguntzarako planek ahalbidetu zuten euskal erakundeen testuinguruan familia- eta haurtzaro-politikek garrantzia handiagoa izaten hastea. Halere, garrantzitsuak dira haurtzaro- eta familia-politikak artikulatu eta gizarte-hezkuntzako gunea eskuratzeko dauden zailtasunak –are gehiago euskal erakundeen arkitektura konplexua aintzat hartuz gero–. Egoera horren ondorio dira erantzun estankoen artikulazioa –hezkuntza, osasun, gizarte-zerbitzu, etab.–, eta erantzun horiek bideratzen dira erakunde bakoitzak dituen eskumen-arduren arabera, baina ezinezko dute berariazko kolektiboentzat, adibidez, haurtzaroarentzat, erantzun global eta integrala ematerik

Testuinguru horretan, zaila izaten da haurtzaroaren arloko prebentzio eta sustapenerako premien multzo handi batek eskumen propio gisara hartuko duen arloa topatzea –bereziki haurtzaroaren kolektiboaren baitan hazten ari den desberdintasun sozioekonomikoak jatorri dituztenak–. Beste modu batean esanda, pobrezia, desberdintasun edo desabantaila sozioekonomikoak bezalako funtsezko dimentsio anitzeko fenomeno batzuen haurrenganeko eraginek ez dute epe motz, ertain eta luzean berariazko eskumen edo administrazio-erakunde baten laguntzarik, eta horren ondorioz jarduten da modu zatikatu eta partzial batean.

Ezinbesteko gertatzen da testuinguru honetan tokiko administrazioen rola –bereziki tamaina ertain handiko hirien kasuan–, izan ere, tokiko arloa aproposa baita, gizarte-hezkuntzako ikuspegiari jarraituz, haurtzaro-politikak landu eta burutzeko.

Egoera horri aurre egiteko, Itun honek familia- eta haurtzaro-politiken gobernantza egokiagoaren aldeko formulak ezarri beharra hartzen du oinarri, eta esparru horretan, gizarte-hezkuntzako politiken integrazio hobetza lortu nahi da, lurralde eta tokiko mailako gizarte-zerbitzu, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak bereziki aldeztuz.



## 4. **FAMILIA ETA HAURTZAROAREN ALDEKO EUSKAL ITUN HONETAKO ENTITATE ETA ERAKUNDE HARPIDEDUNAK**

Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna adostu dute Euskadiko haurtzaro- eta-familia-politikan zuzeneko eskumena duten instituzio horiek guztiek. Zentzu horreta, Itunak zehazten dituen konpromisoak bere egin eta garatuko dituzte ondoren nabarmentzen diren administrazioetako erakunde hauek:

- Lehendakaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Ogasun eta Ekonomia Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL).
- Emakumearen Euskal Institutua – Emakunde.

Halaber, Itun honetako partaide bilakatu dira Familiaren Euskal Kontseilua osatzen duten erakunde pribatuak.

Dokumentu hau adosten dugun entitate eta erakundeek, halaber, konpromisoa hartzen dugu epe motzean Elkarrizketa Zibilerako Mahaia osatzen duten erakundeei eta Itunak eragingo dien bestelako ordezkariak eta koordinaziorako erakundeei adospenak hedatzeko.



# 5. ITUNAREN HEDAKUNTZA

Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Itun honen asmoa da erakunde arteko estrategia baten garapena sustatzea Euskadiko aldaketa demografiko eta gaztetzearen alde, betiere familia eta haurtzaroaren sostengurako politiken bitartez. Horretarako, Itun hau hedatuko da epe motz eta luzean ondorengo plangintzarako tresna, jarraipenerako mekanismo eta legediaren garapenaren bitartez:

- Epe motzean, haurtzaro eta familiari modu zuzenagoan loturiko Itunaren osagaiak hedatuko dira Familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Planaren bitartez, 2018ko lehenengo hiruhilekoan burutuko dena.
- Epe ertain batean, bestelako arloei eragiten dieten Itunaren edukiak gehitzen joango dira bestelako plan batzuetara, adibidez, IV. Gazte Plana 2020, Etxebitzaren Plan Zuzendaria, Immigrazioarako Euskal Estrategia, 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana, Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021 edo Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2020.
- Halaber, Itunaren hedakuntza gauzatuko da egun indarrean dagoen esparru juridikoaren eguneratzearen bitartez, bereziki Euskal Enpleguaren Legea eta Euskal Hezkuntzaren Legea, edota Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legea eta Familiei Laguntzeko 13/2008 Legeak eraldatuz.
- Itun honen bultzada politiko eta gidaritza teknikoa bermatzeko, ezarriko da Familia eta Haurtzaroaren aldeko Itunaren Jarraipenerako Batzorde bat, eta berau arduratuko da Itunak jasotako konpromisoak bete eta bere hedakuntza eraginkor bilakatzeaz.
- Azkenik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak kudeatzen dituen Haurtzaro eta Familiaren Behatokiaren esparruan eguneratu eta mantenduko da familia eta haurtzaroaren adierazle-sistema, modu honetan EAEko familien eta haurtzaroaren inguruan eskuragarri dagoen informazio hori guztia biltzeko xedez.



# 6.

## ONDORIOAK:

### KONPROMISOEN DEKALOGOA:

- 1 Gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatu seme-alabak dituzten familia guztiei eta haur-pobrezia prebenitu, familia-aniztasuna errespetatuz.
- 2 Gurasoek seme-alabentzako beharrezkoa den bezain besteko astia izatea erraztea, familien premiei aurre egiteko denbora sozialaren antolaketa egokiago bat, eta antolaketa sozial erantzunkidea bultzatzea.
- 3 Gazteen emantzipazio eta bizimodu-proiektu autonomoei lagundu, modu horretan, familia-unitate berriak sortzea errazteko, eta horren desira duten kasuetan, ondorengoak izateko.
- 4 Gurasotasun positibo, haur-osasun, gatazken prebentziorako programak sendotzea, modu horretan guraso- eta hezkuntza-gaitasunak indartzeko, aztura osasungarriak sustatu eta familien baitan gerta daitezkeen gatazken konpoketa erraztuz.
- 5 Haur guztiek arreta-zerbitzu irisgarri, arrazoizko preziokoak eta kalitatezkoak jasotzea erraztea.
- 6 Hezkuntza-politikak berriz orientatu eta eskola-sistema inklusibo eta koedukatzailea eraikitzen sakontzea, ekitatea berrmatuko duena eta desabantaila sozial eta ekonomikoan dauden ikasleen zailtasunak orekatuko dituen.
- 7 Aukera-berdintasunean, haur eta gazte guztiei eskaintzea gizarte-hezkuntzako, kirol, kultur eta aisialdirako baliabide eta ekipamenduen eskaintza zabalago bat.
- 8 Familia- eta haurtzaro-politiken gobernantza hobetzea eta gizarte-hezkuntzako gune erreal baten garapena gauzatzea.
- 9 Instituzio eta diziplina anitzen arteko lankidetzarako konpromisoa, izan ere, gai hauetako dimentsio anitzeko izaerak eragiten baitie hainbat politika publikoko arloei: genero-ikuspegia, hezkuntza, berdintasuna, osasuna, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, kultura, enplegua, etab.
- 10 Gai hauekiko harremana duten eragile pribatuak sentsibilizatzea, bereziki lan-harremanetan zuzeneko inplikazioa dutenak, adibidez, sindikatu eta ugazaben elkarteak, beharrezko gertatzen delako eragile publiko eta pribatuen arteko lotura hori.





# PACTO VASCO *por las* FAMILIAS *y la* INFANCIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



*Bizkaia*  
foru aldundia  
diputación foral



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



# ÍNDICE

1. POR QUÉ UN PACTO POR LAS FAMILIAS Y LA INFANCIA EN EUSKADI/ **5**
2. OBJETIVOS, MARCO CONCEPTUAL Y PRINCIPIOS DE ACTUACIÓN/ **7**
3. LÍNEAS BÁSICAS DE ACTUACIÓN/ **13**
4. ORGANISMOS Y ENTIDADES SUSCRIPTORAS DE ESTE PACTO VASCO POR LAS FAMILIAS Y LA INFANCIA / **19**
5. DESPLIEGE DEL PACTO/ **21**
6. CONCLUSIONES: DECÁLOGO DE COMPROMISOS/ **23**



# 1. POR QUÉ UN PACTO POR LAS FAMILIAS Y LA INFANCIA EN EUSKADI

De acuerdo al artículo 3 de la Ley 13/2008, de 12 de diciembre, de Apoyo a las Familias, la política familiar de la Comunidad Autónoma del País Vasco se basará en los siguientes valores fundamentales:

- Respeto a la libertad de decisión y elección sobre el proyecto familiar.
- Respeto a los derechos de todos los miembros de la familia, cualquiera que sea su edad y grado de autonomía.
- Respeto de la diversidad familiar y tratamiento igualitario a los diferentes tipos de familia.
- Igualdad de oportunidades para mujeres y hombres y corresponsabilidad de ambos miembros de la pareja.
- Reconocimiento del papel de la familia como principal agente de la solidaridad intergeneracional e intrageneracional.
- Reconocimiento y respeto del papel de la familia como transmisora de los valores de libertad, solidaridad, respeto, tolerancia, igualdad, pluralidad, participación y convivencia, y, en general, los principios democráticos de convivencia social.
- Solidaridad con las familias en situaciones de especial vulnerabilidad o riesgo de exclusión social.
- Autonomía de sus miembros en orden a su pleno desarrollo personal dentro del ámbito familiar.

A partir de esos valores, en su artículo 4 la Ley establece que la política familiar de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el conjunto de medidas articuladas en su marco perseguirán los siguientes objetivos:

- Promover y proteger los derechos de todos los tipos de familia y contribuir a la mejora de su nivel de bienestar.
- Garantizar la protección de la infancia y la adolescencia en el seno de la familia.
- Contribuir a la progresiva eliminación o reducción de los obstáculos que dificultan que las personas puedan iniciar su proyecto familiar y tener el número de hijos e hijas deseado.
- Facilitar la conciliación de las responsabilidades familiares y laborales, así como la incorporación de la mujer en el mercado de trabajo y el desarrollo de su carrera profesional.
- Contribuir al afianzamiento de la corresponsabilidad de hombres y mujeres en el ámbito familiar, en particular en el cuidado y educación de los hijos e hijas menores de edad y en la atención a las personas que se encuentren en situación de dependencia.
- Fomentar la solidaridad intergeneracional e intrageneracional.
- Garantizar la protección económica de la familia.
- Prevenir la exclusión social en las familias que se encuentren en situaciones de especial vulnerabilidad.

Las entidades y organismos que suscribimos este Pacto Vasco por las Familias y por la Infancia constatamos con preocupación que algunos de esos objetivos se están viendo particularmente amenazados en el actual contexto socioeconómico. A partir de esa constatación, el Pacto que suscribimos busca articular un paquete coordinado de políticas que dé respuesta a dos fenómenos que tienen un carácter estructural:

- Las bajas tasas de natalidad y, sobre todo, la persistencia de los obstáculos que dificultan que las personas puedan iniciar su proyecto familiar y tener el número de hijos e hijas deseado.
- Las mayores dificultades económicas de las familias con hijos e hijas –uno de cuyos principales exponentes es el crecimiento de la pobreza infantil– y las crecientes dificultades para romper la transmisión intergeneracional de las desigualdades, lo que cuestiona el principio de igualdad de oportunidades.

